

"ZIZURLAN" LANKIDETZAKO ETA EKINTZAILTZAKO ESPAZIOAREN ETA ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEN DITUEN ARAUA

ZERGA-OINARRIA.

1. artikulua.

Zizur Nagusiko Udalaren Coworking Zizurlan lan-eremuaren zati bat erabiltzea eta zerbitzua jasotzea da prezio publikoaren zerga-oinarria.

ORDAINTZERA BEHARTUAK

2. artikulua.

2.1. Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuko ondasunak eta zerbitzuak baliatu edo erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoak izango dira ordaindu beharreko dutenak, aldez aurretik adjudikatuta.

2.2. Toki Garapeneko Zerbitzuak oniritzia eman ondoren, aretoak erabiltzen dituzten kanpoko pertsonak ere prezio publikoak ordaindu beharko dituzte.

KUOTA.

3. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoa tarifa hauen arabera finkatutakoa izango da:

LANPOSTUEN PREZIOAK

BANAKAKO LANPOSTUA	LEHEN URTEA	BIGARREN URTEA	
Autonomoak	90€	120€	
BANAKAKO LANPOSTUA	OROKORRA	IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK	<25 ETA >45 URTE
Ekintzaileak *	50€	40€	30€
Soldatapeko langileak (salbuespen gisa**)	150€		

* Ekintzailtzat hartuko da negozio-/proiektu-idea bat garatzen ari dena coworking-ean alta emanda dagoen onean, eta jarduera horrengatik diru-sarrerarik lortzen ez duena.

** Salbuespen gisa, eta Coworking Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Eremuan espazio librerik badago, enpresa batentzat telematikoki lan egiten duten pertsonak ere parte hartu ahal izango dute bertan, autonomo izaera beharrik izan gabe.

Bermea edo fidantza bi hilabetetan gordailutuko da, eta espazioen erabilera amaitzean itzuliko da, hauek kontserbazio-egoera onean utzi badira, Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Gunearen Funtzionamenduari eta Barne Kudeaketari buruzko Ordenantzarekin bat etorritik.

LAN-EREMUEN PREZIOA

Eremua	Barneko langileentzako prezio		Kanpoko langileentzako prezioa	
Beheko solairua				
11 metroko gela	4€/ordu	20€/eguna	15€/ordu	50€/eguna
Lehen solairua				
11 metroko gela	4€/ordu	20€/eguna	15€/ordu	50€/eguna
Bigarren solairua				
44 metroko gela	10€/ordu	50€/eguna	30€/ordu	100€/eguna

Erabiltzaileek (barneko langileek) honako eskubide hauek izango dituzte finkatutako prezio publikoagatik:

- Lanaldi osoan daudenean:
 - o Beheko solairua: banakako lanpostua eta hari esleitutako altzariak, bilera-gelaren erabilera gehienez 2 orduz jarraian eta komunak.
 - o Lehenengo solairua: 44 metroko bilera-gela hilean 10 orduz erabiltzea, gainerako erabiltzaileen eskariaren arabera.

SORTZAPENA.

4. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren sortzapena zerbitzua ematen hasten den unean hasten da, Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzailtzako Guneko bulegoak eta zerbitzu osagarriak erabiltzeko baimena eman ondoren.

Prezioa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua ematen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Aretoak erabiltzen dituzten kanpoko pertsonak prezio publikoa ordaindu beharko dute jarduera egin ahal izateko giltzak jasotzean. Une horretan, gainera, 50 euroko fidantza ordaindu beharko dute, eta Zizur Nagusiko udaletxean giltzak entregatu ondoren itzuliko zaie.

KUDEAKETA-ARAUAK.

5. artikulua.

5.1. Kuotak hilerik likidatuko dira, eta dagokion hilaren hasieran.

Prezio publikoa kobratzearen kudeaketa errazteko, banku-helbideratze bidezko ordainketa izanen da.

Alta eta baja kasuetan, ordaindu beharreko zenbatekoa hilabete osoka likidatuko da. Baja hartu nahi duten erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute Udaleko Erregistro Orokorraren bidez, hilabete lehenago.

5.2. Kuotak biltzeko borondatezko aldian ordaintzen ez badira, premiamendu-prozeduraren bidez kobratuko dira.

5.3. Zizurlan Lankidetzako eta Ekintzaitzako Eremutik kanpoko pertsonak aretoak erabili ahal izango dituzte lekua lagatzeko inprimakia bete eta Toki Garapenerako Zerbitzuaren oniritzia jaso ondoren (ikus Ordenantza).

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

6. artikulua.

Tributuen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta horien ondoriozko zigorrei dagokienez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta hura osatzen eta garatzen duten xedapenetan araututako araubidea aplikatuko da.